


...eta **Kitto!**

**EIBARKO EMAITZAK
2012 - X - 21**




**EUSKO
LEGE BILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK**



Batzokian egindako afariarekin ospatu zuten EAJ-PNVko hainbat kidek atzo lortutako emaitzak.

2012ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak Eibarren



Urkulluren alderdiak 300 boto atera dizkio PSE-EEri eta 400 EH-Bilduri

Aspaldiko partez EAJ-PNV nagusi Eibarren

2005eko Eusko Legebiltzarrerakoak kenduta, PSE-EEK mota guztietako hauteskundeak irabazi ditu Eibarren. Iazko azaroaren 20an Bildu 300 botoratu hurreratu zitzaion eta, orain dela lau urte, orduan ere Jaurlaritzako hauteskundeetan, EAJ-PNV 150 boto eskasera geratu zen. Oraingoan, baina, harrapatu ez eze, pasatu egin du.

Berrito ere argi geratu da hauteskunde guztiak ez direla berdina eta udal hauteskundeetan ez bezala erantzun dute boto-emaeleek.

Horren adibide garbia dugu PP-k izan duen gorabeheretan azken urte eta erdian: udal hauteskundeetatik Kongresurakora 900 boto egin zituen gora, Raxoiren aldeko olatuarekin, oraingoan berriro lehenengora bueltatzeko.

EH-Bilduk ehun bat boto galdu ditu azken hauteskundeetatik, PSE-EEK 350 gutxi gorabehera eta PPK aipatutako 900 horiek. EAJ-PNVk, baina, udalerako hauteskundeetatik Kongresurakoetara 850 irabazi zituen eta orain, beste jauzi bat emanez, beste 750 irabazi ditu, Eibarren nagusi bihurtzeraino.

Argi dago horrelako emaitzak ezin direla berehala Udalerako hauteskundeak balira moduan hartu, baina atzoko emaitzak zinegotzietara pasatuz, oso bestelako Udala erakutsiko ligukete.

Euskal Autonomi Elkarteak lau hankako mahaia badirudi gurean ere finkatzen doala, batez ere Ezker Batua - Berdeak eta Ezker Anitzaren artean egon den banaketaren inguruko gertaerekin. Ordezkaritza lortzea hori baino garestiagoa da.

Azken hiru hauteskundeetako emaitzak Eibarren

| 2011ko UDALERAKO hauteskundeak | | 2011ko KONGRESURAKO hauteskundeak | | 2012ko JAURLARITZAKO hauteskundeak | |
|--------------------------------|--------------|-----------------------------------|--------------|------------------------------------|--------------|
| PSE-EE | 4.991 | PSE-EE | 4.310 | EAJ-PNV | 4.250 |
| BILDU | 3.673 | BILDU | 4.087 | PSE-EE | 3.954 |
| EAJ-PNV | 2.657 | EAJ-PNV | 3.504 | BILDU | 3.839 |
| PP | 1.112 | PP | 2.048 | PP | 1.150 |

Udal hauteskundeak izanez gero... ZINEGOTZI KOPURUA

| | ORAIN DITU | IZANGO LITUZKE |
|----------|------------|----------------|
| PSE-EE | 9 | 6 |
| EH-Bildu | 6 | 6 |
| EAJ-PNV | 4 | 7 |
| PP | 1 | 2 |



EMAN CONSULTING, S.L.

AHOLKULARITZA ETA CONSULTING

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

GIZA ERREKURTSOAK

- Enpresako komenio eta hitzarmenak

PERTSONALAREN AUKERAKETA

STAFF OROKORRA

- KRISIALDIAN DAUDEN ENPRESAK BERRIRO MARTXAN JARRI

AUDITORIARIK

- KOMENIO ESTRAJUDIZIALAK

ORDAIN-ETENALDIAK

- ASEGURU PRIBATUAK

KALITATE ARAUAK



MAILAK TRUST, S.L.

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA

- ALOKAIRUAK

- TRASPASOAK

- BALORAZIOAK

- PERITAJEAK

- SUBENTZIOAK

- KREDITU OFIZIALAK

- BANKU KREDITUAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) Tel. 943 200 336 / 943 208 778 Faxa: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) Tel. 943 170 451 Faxa: 943 176 901

J. Etxeberria 5 (Tel. 943 200 336 / 943 200 069 - Faxa: 943 200 342) **EIBAR**
Marqués de Valdespina 10 (Tel. 943 170 054 - Faxa: 943 176 901) **ERMUA**

emanjur@emansl.es

BOTUA EMOTERAKUAN

Alderdixetako
ORDEZKARIXEkin
berbetan

1.- Zelan ikusi dozu KANPAINIA? 2.- Zelako EMAITZAK espero dittuzue?



MIREN SOJO (EAJ-PNV)

Eguardiko 12.00xetan eman zeban EAJko ordezkariak botua. Eurixa gogor ziharduan, baiña hasitta eguan hara eta honako mugimendua hautes-mahaixetan.



- 1.- Pozik nago kanpaiñiarekin, gure lehendakariagaixo ondo presentatu dogulako eta alderdi danak gazozelako presente, baiña ETA barik. Krisixari aurre egitteko urtietan gestore onak izan garala be erakutsi dogu.
- 2.- Oso emaitza onak espero dittut, baiña ez inkestek hori esaten dabelako, jendiarengan konfiantza dakatelako-baiño eta hautu egokixa egingo dau.



ENEKO ANDUEZA (PSE-EE)

Urkizuko eskolan emon eban botua 10.00etan sozialistikiak, honek be euripian. Ordu horretan giroa lasaixa zan kalia eta mahaixen inguruan ez ebillen jende askorik.



- 1.- Alderdixen aldetik gogorra, lehia haundikua. Bestela, kalia ez da ikusi girorik, jendiak nahikua arazo dakalako gurekin preokupatzeko.
- 2.- Eibarren onak izatia espero dogu, baiña orokorrian ez dakit zer pasau leikian. Inkestekin ezin leike ibilli, kontraesan morduia dagozelako. Lehia EAJ, PSE-EE eta Bilduren artian egongo da.



JOSU CRISTOBAL (EH-BILDU)

Arrateko Andra Marin topau genduan Bilduko ordezkariak 11.00etan. Ordurako kalia jende morduia ikusten zan, botua emonda edo emoteko zain.



- 1.- Bestietan baiño krispaziño gitxiago ikusi dot orohar, baiña ez alderdi konstituzionalisten kasuan, hor gora egin dau-eta. Guk ilusiño haundixa ikusi dogu inguruan.
- 2.- Azken bixetako joeria ikusitta, gitxienez oiñ artekuari eustia espero dogu. Hortik aurrera, sorpresia gu lehelengo indarra izatia gustauko litxakigu.



CARMEN LARRANAGA (PP)

Goizeko 09.30xetarako jua zan botua emotera alderdi popularreko ordezkariak Coliseora. Eguraldi eskasagaittik-edo oindiok oso jende gitxi ikusten zan kalia.



- 1.- Mezu indartsuak igorri badittue be, oinguan ez dot ikusi beste batzuetan kanpaiñaren bueltan ikusi izan dittudan liskarrik.
- 2.- Positibua izaten naiz, baiña oinguan zatarrenarekin dantzan egittia tokau jaku, murrizketak-eta tartian. Alderdi bat gehixago be badago. Ikusiko dogu, ia oiñ artekuari eusten detsagun.



ITOITZ Gº-ANTON (E. Anitza)

Eurixa apalago, 13.00ean emon zeban botua Ezker Anitzekuak San Andres eskolan. Ordurako jente asko zebillen bai gimnasio aldian, bai San Andresko jantokixan.



- 1.- Zentsuratutako kanpaiña izan da: sei alderdixen arteko debatan be ez deskue parte hartzerik laga, nahiz eta IU Federalaren ordezkariak geu izan EAEn. Horrek zailtasunak sortu dittu gure proiektua azaltzerakuan.
- 2.- Probintzia baxotzeko ordezkari bana lortuko dogula espero dot, hau da, hiru ordezkari eukiko doguzela Legebiltzarrian.



JUAN GOMEZ (Ezker Batua)

Gurasuekin batera aillegau zan Urkizuko eskolara Ezker Batuko ordezkariak. Arratsalderako laga zeban botua emotia Gomezek eta lasai zeguan eskolia.



- 1.- Erabakitzeko eskubidiari buruz berba asko egin da kanpaiñan eta gitxi krisixari buruz, eta gitxiago biharrezkua dan konstituziño barrixari buruz.
- 2.- Hauteskundien legiak alderdi haundixak saritzen dittu eta txikixak albo batera laga. Lege horren arabera emaitzak espero dittut: Legebiltzar ez anitza eta guztiz polarizatua.

EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTETSIAK

| | |
|----------|----------|
| EAJ-PNV | .. 27 |
| EH-Bildu | .. 21 |
| PSE-EE | ... 16 |
| PP | 10 |
| UPyD | 1 |

...eta inkestek ziotena:

Aztiker (GARA):

EAJ-PNV 28, EH-Bildu 24, PSE-EE 12, PP 8, Ezker Anitza 2, UPyD 1

Gizaker (DEIA):

EAJ-PNV 22/25, EH-Bildu 21/22, PSE-EE 18/19, PP 11/13

Ikerfelk (EL CORREO TALDEA):

EAJ-PNV 25/27, EH-Bildu 21, PSE-EE 15/16, PP 10, Ezker Anitza 2/3, UPyD 1

Sigma Dos (EL MUNDO):

EAJ-PNV 24/26, EH-Bildu 20, PSE-EE 16/18, PP 12, Ezker Anitza 1

CIS (Espainiako Gobernuak):

EAJ-PNV 27, EH-Bildu 21/22, PSE-EE 14, PP 9/10, Ezker Anitza 3



San Andres, 1 ac
EIBAR
943 20 34 45

GIDA-BAIMENAK

Teknologia berriekin

ZEZEN BIDE



AUTO ESKOLA



ORDUTEGIA
09.30-13.00
15.30-20.30



5 EGUNEKO Teorikako IKASTARO TRINKOAK

HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK AUZORIK-AUZO

| | EAJ-PNV | PSE-EE | EH-Bildu | PP | Ezker Anitza | Ezker Batua | UPyD | Equo |
|-----------------------|--------------------|--------------------|--------------------|-------------------|-----------------|-----------------|-----------------|----------------|
| Amaña | 208 (%17) | 581 (%46) | 226 (%18) | 132 (%10) | 45 (%4) | 13 (%1) | 10 (%1) | 9 (%1) |
| Ipurua | 496 (%28) | 497 (%28) | 528 (%29) | 107 (%6) | 55 (%3) | 38 (%2) | 17 (%1) | 12 (%1) |
| Coliseoa | 545 (%34) | 347 (%22) | 443 (%28) | 130 (%8) | 40 (%2) | 29 (%2) | 10 (%1) | 14 (%1) |
| Gerontologikoa | 100 (%18) | 184 (%34) | 147 (%27) | 55 (%10) | 15 (%3) | 10 (%2) | 7 (%1) | 2 (%0) |
| San Andres | 803 (%34) | 489 (%21) | 689 (%29) | 171 (%7) | 63 (%3) | 45 (%2) | 20 (%1) | 23 (%1) |
| Udaletxea | 995 (%35) | 627 (%22) | 784 (%28) | 210 (%7) | 57 (%2) | 27 (%1) | 18 (%1) | 10 (%0) |
| Urki | 304 (%20) | 558 (%37) | 357 (%23) | 141 (%9) | 56 (%4) | 33 (%2) | 11 (%1) | 13 (%1) |
| Urkizu | 799 (%31) | 671 (%26) | 665 (%26) | 204 (%8) | 84 (%3) | 41 (%2) | 31 (%1) | 16 (%1) |
| Guztira | 4.250 (%29) | 3.954 (%27) | 3.839 (%26) | 1.150 (%8) | 415 (%3) | 236 (%2) | 124 (%1) | 99 (%1) |

ZENTSOA: 22.013

BOTO-EMAILEAK: 14.516

PARTE-HARTZEA: %65'94

BOTO ZURIAK: 182

ARGITARATZAILEA:
"...eta kittol!" Euskara Elkartea.
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar.
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.
www.etakitto.com

BABESLEA:
Eibarko Udala.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

LAN TALDEA:
Maider Aranberri, Juan Andres Argoitia,
Naiara Azpeitia, Julian Fernandez,
Silbia Hernandez, Aina Labado,
Ainhoa Luz, Koldo Mitxelena,
Ainara Riveras.

KOLABORATZAILEA:
Eneko Astigarraga.

ARGAZKIAK:
Leire Iturbe.

DISEINUA / MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu, Belen Ulazia.

TIRADA:
6.000 ale.

BANAKETA:
Ihintza Fernandez, Anartz Mitxelena.

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A:
"...eta kittol!"

LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92.

ISSN:
1132-1679.

"...eta kittol!"-k ez du bere gain
hartzeko aile honetan adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



ENEKO ASTIGARRAGA
(soziologoa)

Kolaborazioa

Aurreikusitako aldaketak: PSEren porrota eta gehiengo abertzale nabarmena

KRISIALDI EKONOMIKOA ETA INDEPENDENTZIA IZAN DIRA ETaren jardura armaturik eta legez kanpo geratzeko mehatxurik gabe azken hilebetean jokatu den hauteskunde kanpainaren ardatz nagusiak. Esango nuke orokorrean soseguz eta lasai joan dela kanpaina, baina ez dugula ikusi alderdietako hautagaien proposamen zehatzegirik.

Parte-hartzea ia %66koa izan da, hau da, hiritik bik eman dute bozka. Emaizak ez dituzte inoiz denen gogoa betetzen, baina errealitate konplexu baten irudia irten da, gurea den bezalakoa. Hala ere, errealitate hori gehiengo abertzale batek osatzen duela adierazi dute hautesleek gaurko bozketan.

EAJ izan da Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako irabazlea, 27 eserlekurekin,

eta EH Bildu bigarrena, 21ekin. PSE-EEK jaso du hauteskunde hauetako jipoi handiena.

Horren ondorioz, neurri handi batean inkestek aurreikusten zituzten aldaketa egon da. Aurreikusita zegoen bezala, alderdi abertzaleen nagusitasuna azaldu du herritarren bozkak eta laster osatuko den Legebiltzarrak gehiengo abertzale hori isladatuko du. Ehunekoetan %64 lortu du EAJ eta EH Bilduren batuketak, eta gehiengo hori bai Araban (%52), zein batez ere Gipuzkoan (%72) edo Bizkaian (%68) ematen da.

Eibarren ere indar abertzaleen aldeko botoek %61arekin gehiengo lortu dute. Aspaldiko partez, EAJ izan da irabazlea Eibarren, bigarrena PSE-EE eta EH Bildu hirugarrena. Hirurak ere nahiko gertu boto

kopuruari dagokionez: 4.250 EAJk, 3.954 PSE-EEK eta 3.839 Bilduk.

Hurrengo egunetan alderdien aritmetikak eta akordioek erabakiko dute Eusko Legebiltzarra osatu ondoren, Jaurilaritza berria nolakoa izango den; jakina, ia ziurtzat eman daiteke Iñigo Urkullu izango dela hurrengo lehendakaria.

Testuinguru ekonomiko zailean hartuko du Gobernuaren ardura eta lidergoa, eta azken urteteetan ohizkoa den bezala gauzak aurrera ateratzeko politika lana egin eta akordioak lortu beharko ditu, ez bakarrik gainean dugun krisialdi ekonomikoari erantzuteko; epe luzera begira gatazka politikoa gaintzeko irtenbideak ere proposatu beharko ditu.



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

bista eder
clinica dental - hortz klinika

R.P.S. 149/12

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder Hortz Klinika

Bista Eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75

"Ezin ditzakegu gauzak aldatu
beti berdina egiten badugu"

www.EstilGráfico.com

1990etik neurri egindako komunikazio grafikoa

SORMENA |
LAN TALDEA |
WEB GUNEAK |
ENPRESAKO BIDEOAK |
KATALOGOAK |
IRAGARKIAK |
IRUDI KORPORATIBOAK |
ERROTULAZIOA |
ARGAZKIAK |
PACKAGING-A |

BALORAZIOAK

(EVA JUEZ) EAJ-PNV

Eibarko datuak oso onak dira, oso pozik gaude. Hauteskunde autonomikoetan emaitza onak lortu genituen, baina orain Bildu ere badagoela kontuan izanda, emaitzak positiboagoak dira. Euskadiko datuak ere oso onak dira. Herritarrak konturatu dira aldaketa behar genuela eta berriro egin dute gure alde. Dena dela, argi dugu ez dagoela dena eginda. Berba egin behar dugu eta akordioak lortu.




(MIGUEL DE LOS TOYOS) PSE-EE

Erreferentziarik onena 2005eko hauteskundeak dira. Horri jarraituta, EAJk 2.000tik gora boto galduko litzuzke, PSE-EEK 400 bat, Bildu 1.952 botutik 3.839 botu izatera pasatuko litzateke eta PP, berriz, 2.125 botu izatetik 1.150era. Gu gutxi gorabehera emaitzei eustea lortu dugu. Tentsio nazionalista egon da eta nazionalisten baseak besteak baino gehiago mobilizatu dira. Eibarren ezkerreko botua nagusi izaten jarraitzen du.

(LEIRE ABANZABALEGI) EH-BILDU

Emaitzen gaineko gure balorazioa positiboa da: Eibarko abertzale-tasuna gorantz doa eta PSE-EEren politikak, berriz, gainbehera ezagutzen dihardu. Prozesu demokratikoak aurrera egiten jarraitzen du eta Maltzagara begira goaz. Bestalde, EAE mailan bigarren indarra gara eta orain itxaron egin beharko dugu EAJ zeinekin elkar-tzen den ikusteko.




(CARMEN LARRAÑAGA) PP

Eibarren 1.150 boto lortzea ez zaigu emaitza txarra iruditzen. Orokorrean, konforme eta pozik gaude lortu dugunarekin. Oraingo hauteskundeetan, alderdi gehiago aurkeztu dela eta Bildu oso indartsu agertu dela kontuan izanda, Eibarren 200 bat boto bakarrik galtzea ez zaigu hainbesteko iruditzen. Eskerrik asko botoa eman diguten guz-tiei eta gure lana ondo egiten jarraitzea espero dugu.

(ELI GOMEZ) EZKER ANITZA

Emaitzak oso txarrak dira, ez dugu ordezkartzarik lortu. Bi gertaera azpimarratuko nituzke. Komunikabideen aldetik eta, batez ere, euskal telebista publikotik jaso dugun zentsura eta boikota. Ez digute eztabai-detan parte hartzen utzi. Ezker Batuaren banaketak ere kalte handia egin digu. Eibarren eutsi egin diogu eta horrek ilusio handia egiten digu. Eskerrak eman nahi dizkiegu botoa eman diguten guztiei.



(JUAN GOMEZ) EZKER BATUA - BERDEAK

Gizarte eskubideen, benetako demokraziaren eta hazkunde jasanga-riaren alde borrokatzen dutenen banaketak eta indefinizioak jendea eta herriak babesgabe eta argumenturik gabe uzten ditu. Ustezko au-rrerakoi hauek, itun konstituzional legitimoagoa nahi dutela diotene-an, egoera oso modu arriskutsuan ari dira manipulatzeko. Egungo ego-era ez da ona, nahiz eta batzuek euren burua zoriontzen jardun.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTETSI BANAKETA

| Gipuzkoa | |
|----------|----|
| EH-Bildu | 9 |
| EAJ-PNV | 9 |
| PSE-EE | 5 |
| PP | 2 |
| Bizkaia | |
| EAJ-PNV | 11 |
| EH-Bildu | 6 |
| PSE-EE | 5 |
| PP | 3 |
| Araba | |
| EAJ-PNV | 7 |
| EH-Bildu | 6 |
| PSE-EE | 6 |
| PP | 5 |
| UPyD | 1 |

Bi eibartar izango dira hurrengo Eusko Jaurlaritzako parlamentuan: **INAKI ARRIOLA** eta **MIREN GALLASTEGI**, bixak be PSE-EEkuak.

GALIZIAKO HAUTESKUNDEAK

| | |
|--------------------------------|----|
| Partido Popular de Galicia | 41 |
| Partido Socialista de Galicia | 18 |
| Alternativa Galega de Esquerda | 9 |
| Bloque Nacionalista Galego | 7 |



Tfnoa: 943 741800 / Faxa: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 - behea (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
Faxa: 943 20 18 41
E-maila: denolan@denolan.es
Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

Larragest



INMOBILIARIA / ASEGURUA

F. Calbetón, 22-24
Tf. 943 200 012
Mob.690 610 715